

2020KO EKAINAREN 29AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hogei.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta laurden.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ-PNV)

BILDUAK: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

1.- AURREKO AKTA. Aurreko aktaren onespena. 2020-05-28.

Ezagutzera eman da 2020-05-28ko aktaren. Berarekiko zer esanik ez dagoelako aho batez onartu da.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN PROPOSAMENAK (2018EKBO0056):

Ezagutzera eman dira, Antolakuntza batzordearen bi ondorengo proposamenak:

a.- ZIRKULAZIOKO ETA TAOKO ISUNEN ZERBITZUA (BORONDATEZKO ETA NAHITAEZKO BILKETA) ETA BEASAINGO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE SARRERA BATZUEN NAHITAEZKO BILKETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA. KONTRATUA LUZATZEA.

“AURREKARIAK

I.- 2018ko maiatzaren 31n Gobernu Batzordeak erabaki zuen, zirkulazioko eta TAOkko isunen zerbitzua (borondatezko eta nahitaezko bilketa) eta Beasaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerga eta zuzenbide publikoko beste sarrera batzuen nahitaezko bilketa kudeatzeko laguntza-zerbitzua kontratatzea prozedura irekiaren bidez.

II.- 2018ko ekainaren 28an Gobernu Batzordeak, 2018ko ekainaren 25eko Kontratazio Mahaia proposatuta erabaki zuen, aipatutako zerbitzua GESMUNPAL, S.A. enpresari baldintza plegua administratibo nahiz teknikoaren arabera, esleitzea.

III.- Bi mila eta hemezortziko uztailaren 17an aipatutako lanak egiteko kontratu administratiboa sinatu zen ondorengo baldintzetan:

Prezioa:

- A) Borondatezko bideko bilketa: Kobratutakoaren %25a BEZ gabe..
- B) Betearazpideko zergabilketa: Dirutan jasotako zenbatekoen printzipalaren gaineko %20a, BEZ gabe.

Betearazpideko epealdian dirutan kobratuko berandutza interesen %0,

Aurreko atalak ez zaizkio aplikagarriak izango, nahiz eta premiamenduzko bidean dauden zorrak izan, subjektu pasiboak ordaindu behar dituenean Udalaren aldeko epaiaren ondorioz (epaiaren data kobratzeke dagoen kopurua).

- C) Gauzaz kobratuz gero, jasotzeko zenbatekoa aurreko portzentajeak aplikatuz dagokiona izango da, baina bi kontzeptuen baturaren muga maximoa 18.000,00 euro izango da (BEZ gabe).

Kostuen (jakinarazpenak bidaltzea), zenbatekoak Udalaren kontura izango dira.

Epea: Urtebetekoa izango da, 2018-09-05etik kontatzen hasita. Kontratua beste bi urtez luzatu ahal izango da. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta kontratazio-organoak adostu beharko ditu berariaz.

IV.- Estatuaren abokatuak kontratuaren esleipena errekurritu egin zuen (bere iritziz lan hauek ezin dira kontratatu, lan horien muinean “*autoritate jarduketa*” dagoelako eta horiek funtzionarioei dagokielako), eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak emango duen sententziaren baitan dago. Oraindik ere ez da sententziarik eman.

V.- 2020ko ekainaren 9ko datarekin, GESMUNPAL, S.A.k aurkeztutako idatziaren bidez, kontratua luzatzeko eskaera egin du adieraziz sententzia Udalaren aurkakoa izango balitz, kontratuaren exkuzioari uko egingo diotela.

Hau guztia ikusirik, Antolakuntza Batzordeak Gobernu Batzordeari egiten dio ondorengo akordio

PROPOSAMENA

Lehenik.- Zirkulazioko eta TAOko isunen zerbitzua (borondatezko eta nahitaezko bilketa) eta Beasaingo udalaren eta haren erakunde autonomoen zerga eta zuzenbide publikoko beste sarrera batzuen nahitaezko bilketa kudeatzeko laguntza-zerbitzuari buruzko kontratu administratiboa urte betez luzatzea erabakitzea.

Bigarren.- IV. aurrekarian aipatutako sententzia Udalaren aurkakoa izanez gero kontratua bertan behera geratuko dela, kontratistak bere eskarian azaldutakoaren arabera eta ez dela kalteordainik ordaindu beharrik izango onartu eta kontratuaren luzapenean horrela adieraztea.”

Puntu honetan ezagutzera eman da, errekaudazio exekutiboaz arduratuko den teknikariaren hautatze prozesua martxan dagoela baina orain ez dela amaitu.

Leire Artolak ere gogorarazi du teknikariak gain plantilan errekaudaziorako aurreikusitako dagoen administratibo plaza hornitzeko prozedurari hasiera ematea

beharrezkoa dela, teknikariarekin bakarrik ezin duelako Udalak bere kabuz, isunen borondatezko bilketa eta errekaudazio exekutiboan, aurrera eraman.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- ZIRKULAZIOKO ETA TAOKO ISUNEN ZERBITZUA (BORONDATEZKO ETA NAHITAEZKO BILKETA) ETA BEASAINGO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE SARRERA BATZUEN NAHITAEZKO BILKETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA. KONTRATUA ETENDA EGOTEAGATIK KALTE-ORDAINEN AITORPENA.

“AURREKARIAK

1.- Aldez aurretik GEMUNPAL, S.A.k, 2020-04-20ko idatziaren bidez, eskatutako pertsonal gastuei (3 langile) dagokion kalte-ordaina, 2020-03-14tik kontatzen hasita. Otsaila eta martxoko nominak aurkeztu zituen.

2.- 2020-06-01. Alkateak Ebazpena eman zuen ondorengoa ebatziz:

Lehenik. Kontratatik eskatutako kalte-ordaina ez onartzea, soldata-gastuen guztizko zenbatekoari dagokionez; izan ere, Udalak ez du emandako zerbitzuen ordainketa egiten aurrez ezarritako hileko zenbatekoarekin; aitzitik, lehen esan bezala, bildutakoaren gaineko ehuneko baten arabera da.

Kasu horretan, honako hau gertatzen da:

- Ezin izan da trafiko-isunen eta TAOen borondatezko bilketa-zerbitzua eman 2020ko maiatzaren 13ra arte, pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa murriztua egon delako.
- Gainerako lanak (nahitaezko diru-bilketa) atzeratu egin dira, administrazio-epeak eten egin direlako. Horrek esan nahi du fakturatu ez dena ez dela galtzen, baizik eta geroago fakturatuko dela, zerbitzuari berriro ekin ondoren.

*Bigarren. GEMUNPAL, S.A.ri errekeritza, hamar egun baliouduneko epean idatzi hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 1era arte kontratua eteteak eragin dizkion **gastuak kuantifikatu eta justifikatzeko**, ondorengoa kontuan izanda:*

- 2020-03-14an kontratuari atxikitako langileak (eta haien dedikazioa) ez datoz bat enpresa kontratatik lizitazioan parte hartu zuenean proposatutakoarekin.
- Aurreko lehenengo puntuan adierazitakoa.

3.- 2020-05-29. GEMUNPSL, S.A.K trafikoko zehapen-espeditateak kudeatzen dituen langilearekiko dagozkion soldata-gastuen kalte-ordaina eskatzen da. Soldata eta Gizarte Segurantzako kostuez gain, otsaileko nominaren bidez ordaindu zaion pizgarria ere sartzen da.

4.- 2020-06-05. Kontratatari errekeritzen zaio ondorengo dokumentuak aurkezteko:

- Aipatutako langilearen nomina-ordainagiriak, 2020ko apirilari eta maiatzari dagozkionak (martxoko nomina erantsi zitzaion kontratistak 2020ko apirilaren 20an aurkeztu zuen idazkiari).

- Langile horri egindako ordainketen frogagiriak, 2020ko martxoko, apirileko eta maiatzeko nominei dagozkienak.

Adierazten zaio pizgarria ez dela langilearen soldata-gastuen parte, kontzeptu hori ez delako martxoko nominan agertzen eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34,1-1. xedatutakoaren arabera, kalte-ordain modura ondorengo dago kio ordaintzea: *kontratistak, etenaldian, 2020ko martxoaren 14an kontratuaren exekuzio arruntari atxikita zeuden langileei benetan ordaindu dizkien soldata-gastuak.*

5.- 2020-06-09. GESMUNPAL, S.A.k apirila eta maiatzari dagokion langile horren nominak aurkezten ditu. Ez da justifikaziorik aurkezten ordainketei buruz.

6.- 2020-06-12. GESMUNPAL, S.A.k martxoa, apirila eta maiatzeko nominak aurkeztu ditu langileak sinatuta eta gizarte segurantzaren ordaindu izanaren egiaztagiriak, maiatzekoa izan ezik horren ordainketa epea ekainaren bukaerako izanik.

OINARRI JURIDIKOAK

Aipatutakoaz gain, kontuan izan behar da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34,8 artikulua dionena, hots:

“Artikulu honetan adierazitakoaren ondorioetarako, bertan aipatzen diren soldata-gastuek barne hartuko dituzte Gizarte Segurantzako kotizazioei dagozkienak..”

Horren ondorioz, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten zaio, kontratu honen organo kontratazioa delako:

Lehenik. 2020-03-14tik 2020-05-31 bitarte, GESMUNPAL, S.A.ri trafikoko zehapen-espeditanteak kudeatzen dituen langilearekiko dagozkion soldata-gastuen kalte-ordain kontzeptuan, **4.426,71 €** ordaintzea, hau da:

1.- Soldata: 3.354,84 €, honela banatuta:

- Martxoa: 754,84 €.
- Apirila: 1.300,00 €.
- Maiatza: 1.300,00 €.

2.- Gizarte Segurantzako kuotak: 1.071,87 €, honela banatuta

- Martxoa: 241,17 €.
- Apirila: 415,35 €.
- Maiatza: 415,35 €.

Bigarren. Erabakiaren berri kontratistari ematea, beronen aurka aurkeztu daitezken errekurtsioen aipamena eginez.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda eta aho batez onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEAREN PROPOSAMENAK:

a.- HIZKUNTZA ERREFORTZU ZEBITZUA. KONTRATUA LUZATZEA.
2017ESEP0004)

“AURREKARIAK

- D) Dagokion espedientea tramitatu ondoren 2017ko uztailaren 5ean sinatu zuten Beasaingo Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak Beasainen hizkuntza errefortzu zerbitzua emateko kontratu administratiboa.
1. Kontratuaren iraupena bi ikasturtekoa da eta beste bi urtetarako luzatu ahal izango da, baina ikasturtez ikasturte, eta kontratuaren iraupenak guztira, bi luzapenak barne, ezin izango ditu lau ikasturte gainditu. Honela jasota dago:
 - Baldintza pleguaren 5. puntuan.
 - Lizitazio iragarkian (GAO 2017-05-04)
 - Kontratu administratiboan (2017-07-05)
 2. 2019ko apirilaren 4ko bileran, Gobernu Batzordeak kontratua beste ikasturte baterako luzatzea erabaki zuen eta 2019ko apirilaren 10ean sinatu zen kontratua. Beraz, kontratua 2020ko ekainaren 30ean amaituko da.
 3. Kontratuaren epe-muga iristear dagoenez, Hizkuntza Politikako teknikariak 2020ko ekainaren 5ean kontratua luzatzearen aldeko txostena egin du.
 4. Beraz, Herritarren Batzordeak, kontuan izanik, luzapenak bi aldeen arteko espresuki hartutako erabakia eskatzen duela, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Ttakun Kultur Elkartearekin 2017ko uztailaren 5ean sinatutako kontratua luzatzea, Beasainen 4 eta 12 urte bitarteko hurrei hizkuntza errefortzu zerbitzua emateko.

Bigarren. Luzapenaren epea ikasturte batekoa izango da, hau da, 2020ko irailaren 1etik 2021ko ekainaren 30a arte.

Hirugarren. Kontratuaren prezioa 2019-2020 ikasturtekoa bera izango da, hau da, 56.667,12 € + BEZa.

Laugarren. Alkateari baimena ematea, kontratuaren luzapena sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor (Beasaingo EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du kontratu hau ez dela betetzen ari pleguetan adierazitako moduan eta burutzen ari den moduan ez doala Udalak zuen asamoarekin. Pleguetan ez da aurreikusten zerbitzua ludotekaren bidez ere emango dela eta enpresak berak, lehenengo ikasturteko balorazioa egiteko memorian aipatzen du 30 minutuko jolas librea egiten dutela ludoteka dinamika erabiliz. “

Alkate (EAJ-PNV) jaunak ihardetsi dio esanez, bideratutako jolasa dela eta hau dela bitartekoa hizkuntza lortzeko. Ikastetxeek ematen dituzte lehenengo urratsak eta zerbitzu honen bidez errefortzatu egiten dira.

Eva Alvarez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) zinegotzi andreak esan du memorian ez zegoela jasota kontratuaren helburua betetzen zen.

Nerea Manzisidor (Beasaingo EH Bildu) zinegotzi andreak xehetasun hori baieztatu du eta baita ere adierazi du aurtengo ikasturteko memoria oraindik ez dutela aurkeztu. Zerbitzu inklusiboa izan behar duela esan du eta bere ustetan ez da horrela, euskaldunek ez dutelako eskubide berdina zerbitzu honetara apuntatzeko. Taldeka mugatuta daude. Murumendi ikastetxeko zuzendariarekin hitz egin ondoren jakin dute zerbitzu horretara bideratzen direla premia duten ikasleak. Galdetu du kriba hori nola egiten den.

Alkate (EAJ-PNV) erantzun du esanez nahi duenak apuntea eman dezakeela eta euskaldunentzat ere badagoela tokia, nahiz eta ikastetxeek arduratu umeak zerbitzu honetara bideratzen.

Leire Artola (EAJ-PNV) zinegotzi andreak esan du aurtengo memorian jarri beharko direla begiak.

Nerea Manzisidor (Beasaingo EH Bildu) zinegotzi andrearen iritziz garrantzitsua da jakitea zer nahi zen eta zer lortu den, zeren eta ukatzerik ez dago ordu erdi batean jolas libreak egiten ari direla.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 1 (Beasaingo EH Bildu)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin hizkuntza errefortzu kontratua beste ikasturte batez luzatzea erabaki da.

b.- BEASAINGO UDALAK ETA BEASAINGO KIROL ELKARTEAREN ARTEAN HITZARMENA. 2020KIBO0001

“BEASAINGO UDALAREN ETA BEASAIN KIROL ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA DIRU LAGUNTZA NOMINATIBOA JASOTZEKO

Beasainen, 2020ko

HONAKOAK BATZARTUTA:

Alde batetik, Aitor Aldasoro Iturbe jauna, Beasaingo Udaleko Alkate-Presidentea, 72440392Y NAN zenbakiduna, BEASAINGO UDALAREN ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: San Martin Plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoarekin esku hartzen duena.

Bestalde, BEASAIN KIROL ELKARTEA, G20193728 IFK zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Loinaz Futbol Zelaian, Igartza Oleta, 1 helbidean, egintza honetan Kepa Lasa Zaldua jauna jaunak/andreak ordezkaturik, adinez nagusia dena, 34093224W NAN zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Nafarroa Etorbidea 16, nº 5 B duena eta ordezkari 2017ko

ekainaren 29 datako Batzar Orokorraren bilera burututako ahalmenen eskuordetzearen arabera jarduten duena.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakundeen izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

- I) *Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.*
- II) *38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.*
- III) *38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.*
- IV) *Beasaingo Udaleko 2020rako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da Beasain Kirol Elkartearen alde, futbolaren sustapenaren eta futbol zelaien kudeaketaren helburuarekin.*
- V) *Beasain Kirol Elkarteak garatzen dituen jarduerak eta diru laguntza honen xede direnak Beasaingo Udalaren diru laguntzak emateko eskumen alorren barne daude, Beasaingo udalerrian futbol federatuaren garapena eta futbol zelaien kudeaketaren helburua duen proiektua baita eta, ondorioz, udalari dagokion eskumena da, honakoetan xedatutakoaren arabera: 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 25.2.l) artikuluan xedatutakoa; 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.19) artikuluan xedatutakoa; Beasaingo Udaleko 2020rako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean xedatutakoa; eta 2020-2022 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoa, Alkatetzaren 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Ebazpen bidez onartu zena, "JARDUERA FISIKOA ETA AISIALDIA SUSTATZEKO ETA BULTZATZEKO" helburu estrategiko gisa ezarrita eta, hartara, diru laguntza hau 5. lidoaren 5.1. jarduketan barne hartuta.*

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu da jarraian adierazitako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Beasain K.E.ari 143.071 euroko diru laguntza nominatiboa ematea, jarraian adierazitako jardueren garapen eta egikaritzetik eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin:

-Futbol Federatuaren Garapena: Garraioak, Federazio Jarduera, arbitraiak, mediku azterketak, ekipamendua eta futbol zelaien kudeaketa osoa.

-Kirolari guztien ekipamenduetan BEASAIN izena argi eta ikusteko moduan ezarriko da. Klubaren jardueren sustapenean BEASAIN izena eta Udalaren irudia lehentasunezko tokian ezarriko da.

-Beasain K.E.aren gizarte garapena.

BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.

Beasaingo Udalaren betebeharrak dira:

Adostutako zenbatekoa duen diru laguntzaren ordainketa burutzea Beasain K.E.ren alde, hitzarmena sinatu ondoren, Hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.

Beasain K.E.ren betebeharrak dira:

1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

3) Udal organo eskudunak edo udal kontu hartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.

5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.

6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.

7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.

8) Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

9) Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.

10) Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.

11) Elkarateak euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan. Betiere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

12) Elkarateak kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, eta 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, aurrekoa aldatzen duena) bai elkaratearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

13) Kirol Sariak: Udalaren interesa izanik, Beasainen edo Beasaingo pertsona eta entitateek kirol alorrean egindako lan publikoki errekonozitzea, Elkarateak inizatiba horretan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartu du eta horretarako pertsona arduraduna izendatuko du. Izangai edo izangai batzuk Elkarateak aurkeztuko ditu kategoria bakoitzeko ezartzen diren sarietarako, adieraziz horiek lortutako merezimenduak zeintzuk diren.

HIRUGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA.

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, Beasain K.E.ren aldeko diru laguntza nominatibo gisa, 143.071 euro ordainduko ditu, jarraian adierazitako moduan:

- 70.000 euroko zenbatekoa ordaindu egingo da, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere onuradunak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Beasain KIROL ELKARTEAK (G20193728) baimena ematen dio espreski BEASAINGO UDALARI, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentutik eta Gizarte Segurantzatik eskura dezan hitzarmen honetan aipatzen den ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK ETA BETEBEHARRAK EGUNEAN IZATEAREN baldintza betetzen duela egiaztatzen dituen agiriak:

BAI

EZ

- Dirulaguntzaren bigarren ordainketa gisa 60.000 €, ondorengo dokumentazioa aurkezterakoan:
 - - 2018/2019 Denboraldian egindako jardueren laburpen memoria.
 - Jardueren gastuaren justifikazioa, faktura edo dokumentuen kopia edo fakturen zerrenda, diruzainak sinatua. Ez dira onartuko ondorengo gastuen agiriak: klubarekin erlazioa duten pertsonalarenak eta ostalaritzako zerbituenak, beti ere hauek aurretik ez badira adostu.
 - Argitalpen, iragarki eta garatutako jardueran sortu den publizitatea, propaganda eta dokumentazio grafikoaren eta idatziaren ale bat.
- Diru laguntzaren azken ordainketa burutuko da onuradunaren justifikazioa jaso ondoren, diru laguntzaren xede zen jarduera, proiektua, helburua edo ezarpena gauzatu izana egiaztatzen duena, jarraian adierazitako dokumentazioaren bitartez:
 - - Burututako jardueren laburpen txostena.
 - Jardueren gastuaren justifikazioa, faktura edo dokumentuen kopien zerrenda (zenbakia, kontzeptua eta zenbatekoa), Diruzainak sinatua. Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.
 - Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitortpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.
 - Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

Hitzarmenaren xede den diru laguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den diru laguntza 2020 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0261.481.341.00.01 (19) partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.

LAUGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2019ko uztailaren 1etik 2020ko ekainaren 31ra bitartean (2019/2020 denboraldia) eta 2020eko urtrailaren 1etik abenduaren 31ra futbol zelaien kudeaketari lotutako proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekareruak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialeko gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.
- f) Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.

BOSGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN.

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuko emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundeetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta diru laguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, diru laguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

SEIGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Ezarritako baldintzak bete izanaren eta emakidan aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa dokumentatu egingo da justifikatzeko kontu emate baten bitartez. Kontu emate hori onuradunaren derrigorrezko egintza izango da eta barne hartu beharko ditu, deklaratzailaren erantzukizunpean, diru laguntzaren helburua bete dela egiaztatzea ahalbidetzen duten gastu egiaztagirak edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikatzeko kontu ematea burutu beharko da 2020ko abenduaren 31 data baino lehen, Udalaren aurrean aurkeztuta emandako diru laguntzaren erabilera justifikatzeko dokumentazio hau:

- 1.- Burututako jardueren laburpen txostena.
- 2.- Jardueren gastuaren justifikazio txostena, honako edukiarekin:

a) Gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adieraziko duena.

b) Fakturak edo Merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten eta administrazio-eraginkortasuna duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentu guztiak ere, aurreko a) letran aipatzen den zerrendan sartutakoak. Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.

c) Diru laguntzen Lege orokorraren 31.3 artikuluen arabera Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzan dituen kasuetarako, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez. Hori horrela, onuradunak mota horietako gastuak izango balitu jardueraren gastuen justifikazio txostenean, gastu horiek eman aurretik hiru eskaintza eskatu dituela adierazi beharko du, beti ere, kontratatu nahi den obra, hornidura edo zerbitzua emateko beste aukerarik ez badago kontratuaren objektuaren ezaugarri bereziengatik edo merkaturan ez badago behar adina erakunde horiek egin, mailegatu edo hornitzen dituenik.

3.- Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitortpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharrak arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.

4.- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROL MEKANISMOAK.

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetiko ordezkari batekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.

ZORTZIGARRENA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK.

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZIOAK.

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2020ko abenduaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ARAUBIDEA.

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta Beasain K.E.ak 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.

HAMAIKAGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea indarrean sartu ondoren, eta haren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren indarraldia ez da izango 4 urtetik gorakoa, alderdiek aho batez luzapen bat edo gehiago adosteko aukera kaltetu gabe, gehienez ere lau urtetan zehar hasierako epea amaitu zenetik.

Hitzarmen honek legezko xedapen hau betetzen du, sinatu zenetik 2020ko abenduaren 31ra bitarteko indarraldia baitu. Hitzarmenak ez du luzapenik onartzen.

HAMABIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA.

Hau izango da legeria aplikagarria:

- Udalaren Aurrekontu Orokorra, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkuraren 2019ko azaroaren 28ko Akordio bidez onartu zena.
- Beasaingo Udalaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa, 2020-2022 aldirakoa, 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Alkatetza Ebazpen bidez onartu zena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- Beasaingo Udaleko diru laguntzen udal ordenantza arautzailea, Osoko Bilkuraren 2006ko azaroaren 30eko Akordio bidez onartu zena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen, lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna.

HAMAHIRUGARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

Beasain K.E.ak hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, baina haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaingo Udalarekin.

Beasain K.E.ak, hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.

HAMALAU GARRENA. DIRU LAGUNTZA ITZULTZEA.

Diru Laguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.

Kasu horretan, diru laguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira diruz lagundutako jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

HAMABOS GARRENA. GATAZKAK EBAZTEA.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebartziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira. Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau izenpetu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako tokian eta datan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor (Beasaingo EH Bildu) zinegotzi andreak galdetu du ea zein irizpide erabiltzen diren diru laguntzak emateko eta bide batez hitzarmenak egiteko.

Alkate (EAJ-PNV) jaunak esan du irizpide batzuk badaudela eta gehienbat kontuan izaten dela jarduera ezberdinetan parte hartzen duten erabiltzaileak. Diru laguntzak gehienak dira aspalditik ematen direnak herriko elkarteei eta oinarrien bidez ematea irizpideak ondo markatuz, orain arte dagoen inertzia hauestea izango litzateke eta hori ez da batere erraza. Kontuan izan behar da herrian hainbat ekintza burutzen direla elkarteei esker. Orain, adibidez, xakea indartu nahi dugu. Betidanik diruz lagundu zaio Alfil elkarteari baina beti xakeaz arduratu direnak utzi egin dute eta mantentzeko saiakera egiten ari direnei laguntzan ez badiegu, Beasaien xakeak betidanik izan duen protagonismoa galdu egingo litzateke.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da Beasaingo Kirol Elkartearekin hitzarmena sinatzea.

4.- LURRALDE BATZORDEAREN PROPOSAMENAK:

a.- 2. ZIURTAGIRIA: EBAKUAZIORAKO BIDEAK. ALKARTASUNA LIZEOA.

Aho batez onartu da, **“Beasaingo “Alkartasuna lizeoa” HLHko areto balionaiztunaren ebakuaziorako bideak egokitzea.”** obrei buruzko obren 2. ziurtagiria, **20.090,31 €**koa (BEZ barne).

b.- KONTRATUEN LUZAPENA:

- EGITASMO OROKORRA IDATZEA eta HIRIGINTZA GAIETAN ASISTENTZIA TEKNIKOA EMATEA.

“AURREKARIAK

1.- 2018-01-31n SABAI ARKITEKTOAK, S.L.P., enpresarekin kontratua sinatu zen Hiri Antolaketaren Egitasmo Orokorra egiteko. Egikaritze epea, 46 hilabete, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, luzatzeko aukerarik gabe.

- 2.- 2016-04-11n AITZIBER OLARTE BIDAURRAZAGA andrearekin kontratua sinatu zen hirigintza arloko laguntza tekniko zerbitzua emateko. Egikaritze epea, 4 urte, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, luzatzeko aukerarik gabe.
- 3.- Gobernu Batzordeak 2020-04-08an egindako bileran, ondorengo erabakia hartu zuen, goiburuan aipatutako bi kontratuekiko:

“Beasaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko kontratua.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak (administrazio-epeak etetea) eragiten dio kontratuari. Aurrerapenari buruzko iradokizunak aurkezteko epea 2020-03-17an amaitu zen, eta, arrazoi horregatik, 2020-03-14an eten egin zen epe hori. Ondorioz, ezin da txostenik egin aurkeztutako iradokizunei buruz, ezta ere “irizpide eta heldburuak” onartu ondoren hasierako onarpenerako dokumentua idazteko.

Kontratatik, 2020-04-02ko idazkiaren bidez, kontratua ez eteteke eskatu zuen, muga batzuekin bada ere, Plan Orokorra idaztearekin bat etor zitezkeelako.

Ordainketa, lanen entrega partzialekin egiten denez (kasu honetan, Aurrerakinarekiko aurkeztutako iradokizunen txostena entregatuz), ez dago arrazoirik kontratua etenda geratzeko, baina kasu honetan gertatzen dena da kontratista berandutzen ari dela, COVID-19ren edo horri aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz. Horren ondorioa izango litzateke kontratuaren epea luzatzea, dagokion prozedura izapidetu ondoren (8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34,2 artikulua).

Beasaingo Udalaren hirigintza-arloko laguntza teknikoa zerbitzua emateko kontratua.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7 artikulua (pertsonek zirkulazio-askatasuna mugatzen da, 463/2020 Errege Dekretuaren a) eta h) bitarteko ataletan eta Hirugarren Xedapen Gehigarrian (administrazio-epeak etetea) eragiten dio kontratu honi.

Enpresa kontratatik, 2020-04-1ean sinatutako idazkiaren bidez, kontratua eteteke eskatu du, zerbitzua telematikoki gauzatzea ezinezkoa delako honako arrazoi hauengatik: lana egiteko dokumentazio guztia eta aurrekari guztiak ez daude euskarri elektronikoa, udal-langileekiko eta beste administrazio batzuetako langileekiko koordinazioa mugatuta dago eta lantokirako joan-etorria oso murriztuta dago.

Kontratazio-organoaren ustez, ordea, aurreko kasuan bezala, kontratista berandutzen ari da, COVID-19ren edo horri aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz. Horren ondorioa izango litzateke kontratuaren epea luzatzea, Horregatik, ez da onartu aurkeztutako eskaera, eta kontratua ez etetea erabaki da.”

- 4.- Erabakia, kontratistei jakinarazi zitzaizen 2020-04-14ko irteera erregistroa duten ofizioen bidez. Errekurtsorik aurkeztu ez dutenez, erabakiarekin ados daudela esan genezake.

- 5.- Bi kontratuetan eragina izan du epe administratiboaren etetea. Etetearen iraupena bi hilabete eta erdikoa izan da (2020-03-14tik 2020-05-31rarte).

6.- Hiri Antolaketa Egitasmo Orokorra idazteko kontratuaren kasuan, ez dago inolako arazorik luzatzeko.

7.- Hirigintzaren arloko laguntza teknikoko zerbitzurako kontratua 204-04-11n amaitzen zen, baina aurrekarien 3. atalean adierazitako arrazoiak kontratuan eragina izan dute eta gauzatzen atzeratu egin da.

Kasu horretan, luzapena hilabete eta erdikoa izango litzateke (2,5 hilabete epe administratiboan eteteari dagokiona kenduko litzaioke kontratua amaitzeko falta ziren egunak: 03-14tik 04-11ra). Baina, egia esan, alarma-egoera deklaratu zenetik zerbitzua ematen jarraitu du, izan ere funtsezko zerbitzua baita hirigintzaren arloko udal-eskumenak garatzeko.

Aipatutako 34,2 artikulua aukera ematen du luzapena, galdutako denbora baino luzeagoa izateko (...aipatutako arrazoiaren ondorioz galdutako denboraren berdina izango den epea emanez, gutxienez, kontratistak epe laburrago bat eskatzen ez badu).

OINARRI JURIDIKOAK

- Maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduaren eta maiatzaren 9ko 8/2020 Dekretuaren babesean, pertsonen zirkulazio-askatasuna malgutzen da.

- Maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak ekainaren 1etik aurrera, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako administrazio-epeen etetea altxatzea erabakitzen duena.

- 8/2020 EDLaren 34,2 ondorengo aukera ematen du:

En los contratos públicos de servicios y de suministro distintos de los referidos en el apartado anterior, vigentes a la entrada en vigor de este real decreto ley, celebrados por las entidades pertenecientes al Sector Público en el sentido definido en el artículo 3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, siempre y cuando éstos no hubieran perdido su finalidad como consecuencia de la situación de hecho creada por el COVID-19, cuando el contratista incurra en demora en el cumplimiento de los plazos previstos en el contrato como consecuencia del COVID-19 o las medidas adoptadas por el Estado, las comunidades autónomas o la Administración local para combatirlo, y el mismo ofrezca el cumplimiento de sus compromisos si se le amplía el plazo inicial o la prórroga en curso, el órgano de contratación se lo concederá, dándole un plazo que será, por lo menos, igual al tiempo perdido por el motivo mencionado, a no ser que el contratista pidiese otro menor.

Aipatutako aurrekari eta oinarri juridikoen arabera, Lurralde Batzordeak ondorengo erabaki-proposamena egiten dio Gobernu Batzordeari.

Lehenik. Beasaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko kontratua aldatzea egikaritze epeari dagokionez. Beste bi hilabete eta erdi luzatzen da epea eta horren ondorioz, kontratuaren amaiera ondorengo izango litzateke: 2022-02-15.

Kontratuaren beste estipulazioak ez dira aldatzen.

Bigarrena. Beasaingo Udalaren hirigintza-arloko laguntza teknikoko zerbitzua emateko kontratua aldatzea egikaritze-epeari dagokionez eta 2020-07-31ra arte

luzatzea, kontratistak denbora izateko osasun-krisiaren ondorioz eragindako zereginak burutzeko.

Kontratua 209-04-11n likidatu ondoren (kontratua amaitzeko aurreikusitako eguna), kontratistak 2020-07-31arte (luzapen epearen bukaera) kobratu beharreko prezioa 5.769,20 €€+ BEZa izango da.

Kontratuko gainerako estipulazioak ez dira aldatzen.”

Nerea Manzidor (EAJ-PNV) zinegotzi andreak galdetu du asistentzia teknikoa nola emango den, oraingo kontratua amaitzen denean.

Alkate jaunak esan du kontratu txikia egingo dela baldintza plegua prestatu eta zerbitzua lizitatu eta esleitzen den bitartean.

Jarraian jakinarazi du, aparejadorea erretiroa hartzekotan dabilela eta aztertzen ari direla Lurralde arloa osotasunean (hirigintza gehi zerbitzuak) kudeatuko duen pertsona hautatzea, plantilan eta lanpostuen zerrendan horretarako plaza aurreikusita eta behar den prozesua burutu ondoren. Gertatzen dena da, Aurrekontu Lege Orokorraren arabera beharrezkoa da baja bat izatea beste plaza bat sortzeko.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartur dira, Egitasmo Orokorra egiteko eta hirigintza arloan asistentzia teknikoa emateko kontratuak luzatzea, proposatutako terminoetan.

c- BEASAINGO UDALERRIAN PARKE, LORATEGI, BERDEGUNE ETA BIDE-ZUHAITZAK MANTENTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA. KONTRATUA PARTZIALKI ETETEA EGOTEAGATIK ORDAINKETA AITORTZEA. 2019ZEBO0034

“Gaia: Beasaingo udalerrian parke, lorategi, berdegune eta bide-zuhaitzak mantentzeko zerbitzuren kontratua eteteagatik, gastuak ordaintzea.

AURREKARIAK

1.- 2020-03-31ko kontratistari (GUREAK BERDEAK, S.L.U.), egindako udal jakinarazpen ondorioz, honek 2020-04-03ko idatziaren bidez, kontratuaren etete partziala eskatu zuen, osorik ezin zelako gauzatu, hau da:

- Gutxieneko zerbitzuak egin izana lorezaintzari eta desinfekzio-lanei dagokienez, baldintza-agiri teknikoaren 3.1.15 artikulua arabera, lan horiek konratoaren xedearen barruan daude.
- Horretarako, langile batzuk enplegatzen ditu (4 langile), eta gainerakoak baimen ordaindu berreskuragarriaren figurari atxikiko zaizkio.
- Alarma-egoera amaitzen denean, orain egin ezin izan diren lanek areagotu egingo dituzte egin beharreko lanak.

2.- Gobernu Batzordeak, 2020-04-08an erabaki zuen kontratua partzialki etetea, 2020-03-25etik .

3.- Gobernu batzordeak 2020-04-30ean erabaki zuen kontratuaren etetea altxatzea 2020-04-13tik, aldez aurretik kontratistak 2020-04-20an eskatuta eta udal Zerbitzu Buruaren aldeko txostena izanda, apirilaren 9an, amaitutzat eman zelako zerbitzu ez-esentzialen jarduera etetea, eta, horri esker, Aste Santuko jaiegunen ondoren jarduerara itzuli ahal izan zen.

OINARRI JURIDIKOAK

- Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko ezohiko neurriak), 34. artikuluan, kontratazio publikoaren arloko neurriak arautzen ditu COVID – 19ren ondorioak arintzeko.

- 10/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa, oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duena, herritarren mugikortasuna murrizteko COVID-19ren aurkako borrokaren testuinguruan.

- Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19ri aurre egiteko gizarte-eta ekonomia-arloan premiazko neurri osagarriak hartzen dituenak: Lehenengo Azken Xedapenak, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34. artikulua aldatzen du.

Zehazki, soldata gastuen kalteordainei buruz, ondorengoa adierazten da:

No obstante, en caso de que entre el personal que figurara adscrito al contrato a que se refiere el punto 1.º de este apartado se encuentre personal afectado por el permiso retribuido recuperable previsto en el Real Decreto Ley 10/2020, de 29 de marzo, el abono por la entidad adjudicadora de los correspondientes gastos salariales no tendrá el carácter de indemnización sino de abono a cuenta por la parte correspondiente a las horas que sean objeto de recuperación en los términos del artículo tres del mencionado Real Decreto Ley, a tener en cuenta en la liquidación final del contrato.

2020-06-08ko datarekin, udal Zerbitzu buruak eta kontratuaren arduradunak ondorengo txostena eman du:

“Martxoaren 25aren eta apirilaren 13aren artean zeuden 11 lanegunetan ez da lorezaintzako mantentze-lanak egiteko jarduerarik izan, eta, aldi horretan, kontratua partzialki eten da. Hori dela eta, lan horiek nabarmen ugartu dira, hazkunde begetatibo handiena gertatu den garaian eta klimaren baldintzak onuragarriak izan direlako hura garatzeko. Horren guztiaren ondorioz, udalerriko berdeguneak eta zuhaixkak ez dira kontrolatzen.

Egoera hori aurreikus zitekeen, eta, ondorioz, 204-04-03ko Gureak Berdeak, S.L.U.k poltsa bat sortzea proposatu zuen gauzatu gabeko lanordu guztiekin, eta zerbitzuan bertan berreskuratzea, langile gehiagokin eta lan-ordutegia zabalduz.

Proposamen hori guztiz bat dator txosten hau sinatzen duenarekin; izan ere, mantentze-erritmoa berreskuratzeke, bitartekoak gehitzea beste aukerarik ez dago.

Gureak Berdeak, S.L.U.k garatutako jardueraren jarraipena eta kontrola espedientean jasota geratzen den eta txosten honen 1. eranskinean ikus daiteke.

2. eranskinean laburpen-taula bat dugu, gauzatutakoaren eta gauzatu gabekoaren berri ematen duena, eta, ondorioz, sortu den ordu-poltsaren berri ematen duena. Horrela, guztira 23 lanegun zenbatuko dira zerbitzuari esleitutako langilerik ezagatik (ordezkatu gabeko

bajako langileak) eta 28 lanegun (208 ordu) ordaindutako baimen berreskuragarria hartu duten langileei esleituta.

3. eranskinean, maiatzaren 11tik ekainaren 5era bitartean, Gureak Berdeak SLUk langile gehiago izan ditu zerbitzuan, eta langile faltari egotz dakizkiokeen 23 lanaldiak bete ditu.

Gainerako 28 lanaldiei dagokienez, horiek 32 minutuko lanaldi-gehikuntzaren bidez berreskuratuko dira 4 hilabete eta erdian, 4. eranskineko kalkuluaren arabera.

Kontuan hartuta zerbitzuak jarduera handiagoa behar duela udalerriko berdeguneen mantentze-erritmoa berreskuratzeko, ordu-poltsaren zati bat berreskuratu dela eta alarma-egoera amaitzen denetik aurrera gainerako lanaldiak berreskuratzeko plan bat ezarri dela,

Honako hau proposatzen da:

Martxoko eta apirileko kuotak osorik ordaintzea, Beasaingo parke eta lorategiak, berdeguneak eta bide-zuhaiztiak mantentzeko zerbitzua emateko kontratuaren zati bat eten delako.

Horren ondorioz, aurrekari eta onarrizko zuzenbideak kontuan izanda, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten zaio:

Lehenik. GUREAK BERDEAK, S.L.U.ri martxoa eta apirila hilebetetan emandako zerbitzuengatik, 2020an hilabetero ordaintzen den diru kopurua ordaintzea, hau da: 20.235,57 € (BEZik gabe).

Bigarren. Erabaki honen berri kontratistari ematea, adieraziz beronen aurka aurkeztu daitezken errekurtsoak.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.